

X. EDIZIOA
19-20-21
ABENDUA DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
2025

HAUEK DIRA
X. EDIZIOKO
MAZOKALARIAK

@MAZOKAFERIA



PRENTSA OHARRA

2025EKO MAZOKALARIEI ETA IKASLEEN BEKARI BURUZKO ERABAKIA JAKITERA EMATEA

- » Aurtengo edizioan, 31 dira hautatutako mazokalariaiak, protagonismo, proiektzio eta leku handiagoak izan ditzaten, euren obra eta ilustrazio aplikatuak hobeto eta sormen handiagoz ikusgai jartzeko.
- » 31. lekua bekikasle-Laboral Kutxa bekaren irabazlearentzat izango da, Sebastián Espinazo portugaletar gaztearentzat, zeinak ilustrazio digitaleko bere proiektuari esker eskuratu baitu beka; bere proiektuan, unibertso oso bat sortu du musikaren, zientzia fikzioaren eta psikodeliaren inguruan..
- » Epaimahaiak eskaeren berrikuntza eta kalitate teknikoaren maila benetan handia azpimarratu du, eta adierazi du ia guztiek betetzen zituztela mazokalaria izateko baldintzak eta estandarrak.
- » X. edizioa den honetan, Arabako mazokalariek, eta baita Ávila, Jaén, Murtzia, Galizia, Dominikar Errepublika, Venezuela eta Italiakoek ere, beren arteaz beteko dute Montehermosoko Ur Biltegia 2025eko abenduaren 19, 20 eta 21ean.



MARRAZKI AZOKA
MERCADO
DE DIBUJO
E ILUSTRACIÓN

19-20-21
ABENDUA-DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
2025

2025ean, Marrazki eta Ilustrazio Azokak, MAZOKA Marrazki Azokak, 10 urte betetzen ditu eta eskusiboago bihurtzen da, obra gehiago eta hobeto sustatzeko eta ezagutzera emateko, eta hautatutako profesionalentzat lanbide aukera handiagoak eskaintzeko. Hala, aurten 31 lagun izango dira, eta ez 40 —orain arte bezala—, Montehermoso Kulturuneko Ur Biltegian esku-hartze/stand artistiko bat baliatzeko aukera izango dutenak.

Antolatzaileek, beraz, aurtengo edizioan, ardatz izango dute egileen aintzatespena zaintzea, talentua ikusgai jartzea, eta saritutako 30 artisten eta beka jaso duen ikaslearen arteko sinergiak eta aukerak sustatzea.

Azokan ilustrazioarekin eta arte-sorkuntzarekin dugun hitzorduaren arrakastaren erakusle dira jasotako ehunka eskaerak, bai eta horien maila eta kalitate tekniko handiak ere. Epaimahaiak azpimarratu du oso konplexua izan dela aukeraketa egitea. Izan ere, hautatzen diren lanen bidez, publikoa estilo, teknika, diziplina, prozesu eta emaitza askotariko eta bereizgarrietara, eta proposamen berritzaileetara hurbildu nahi baita. Adierazi dutenez, ia guztiek betetzen zituzten mazokalari izatearen saria jasotzeko baldintzak eta estandarrak.

Eskaeren % 87 Espainiako Estatutik datoz, eta gainerakoak (% 13, 2024an baino % 9 gehiago) Europako eta Hego Amerikako hainbat nazionalitatetan banatzen dira: Ingalaterra, Finlandia, Italia, Frantzia, Portugal, AEB, Argentina, Txile, Kolonia, Kuba, Dominikar Errepublika, Venezuela, Mexiko, Ekuador eta Mauritania. Euskaditik iritsi diren eskaerak guztizko horren % 26 dira, eta horietatik % 12 Arabakoak ziren.

Eskaera gehienak emakumeenak eta genero ez-binarioenak izan dira: % 80,70. Ehuneko hori azkenean hautatu diren horietan ere islatzen da eta, aurten ere, gehienak emakumeak dira. % 96,4 banako gisa aurkeztu dira eta % 3,6 taldean.

Eskaeren % 17 mazokalari ohienak dira —asko proiektu berrituekin aurkeztu dira, Mazokan aurkezteko berariaz sortutakoekin— eta % 12 ikasleenak dira. Hain zuzen, aurtengo edizioako bi mazokalari Ikasleentzako Bekaren finalista izan ziren 2020an: Natalia Velarde eta Marrimarrakzi. Aurten ere, bada, antolatzaileek harrotasun handiz ikusten dituzte ilustrazioan sortzen ari diren talentuen proiektzioa eta hazkundera, baita horien aldeko apustuaren emaitza ere.

Horri dagokionez, MAZOKAk erakutsi du Euskadiko amateurrek eta profesionalak ezagutzeko bitarteko bat dela eta potentzialtasun saihetsezina duela. Sei erabakiren ondoren, baieztatu dezakegu saridun guztiek bere burua profesionalizatu dutela eta prestigio handiko errekonozimenduak eta sariak jaso dituztela. Horien artean daude Paula Huarte, Juanjo Gasull, Natalia Velarde, Carmen B. Mikelarena edo Saioa Aginako.



MARRAZKI AZOKA
MERCADO
DE DIBUJO
E ILUSTRACIÓN

19-20-21
ABENDUA-DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
2025

2025EKO MAZOKA BEKA

Sebastián Espinazo (2005), Sebas, portugaletarra ilustrazio eta diseinu ikaslea da Bilboko Argi Arte eskolan, eta aitortzen du Pokemonak marrazten hasi zela, nerabezaroan. Mazokara aurkeztu dituen proiektua eta pertsonaiak, Bekikasl-Laboral Kutxa Beka jasotzea ekarri diotenak, bere bideojoko propioaren protagonista izan litezke gaur egun. The Strokesen "Is This It" debut-albumeko letretan oinarrituta, Espinazok fantasiatzko eta zientzia-fikziozko unibertso propio bat sortu du hiru pertsonaiaren inguruan; bertan, psikodeliak, kolore fluoreszenteek, kolore biziek eta kontraste handikoezko narratiba txikiak biltzen dituzten eszenak sortzen dituzten. Horrez gain, hain gaztea izanik ere, ilustrazio digitaleko teknika zaindua du, eta ikuspegi ausarteko proposamenak egiten ditu, sakontasun eta espazio tridimentsionalen ilusio oso egoki bat sortuz.

Horregatik guztiagatik da 2025eko Mazokako Bekikaslea, eta honako sari hau jasoko du: doako izen-ematea, 500 euroko ekarpena ekoizpenerako eta ordainsari gisa, azokako egunetan ostatu hartzeko eta webgune profesional baterako harpidetza.





MARRAZKI AZOKA
MERCADO
DE DIBUJO
E ILUSTRACIÓN

19-20-21
ABENDUA-DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
2025

ETA MAZOKALARIAK, NORTZUK DIRA?

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik etorritakoez gain, Ávila, Málaga, Jaén, Huelva, Zaragoza, Valentzia, Murtzia, Valladolid, Bartzelona, Madril, Asturias, Santiago de Compostela, Dominikar Errepublikar, Venezuela eta Italiatik etorritako pertsonak beren arteaz beteko dute Montehermosoko Ur Biltegia 2025eko abenduaren 19, 20 eta 21ean.

Urtez urte, gero eta gehiago harritzen gaituzte, beren ilustrazioen kalitate eta aniztasun estilistikoagatik ez ezik, aplikatutako produktuen proposamenengatik ere; izan ere pieza bakan gisa edo serie mugatu gisa eskuratu ahal izango ditugu haien sorkuntzak, teknika digitalekin, 3D inprimaketarekin edota artisau-teknikekin egindakoak: linograbatuak, motipotoak eta urtintak, brodatuak, azulejuak, zurezko piezak eta argi-kutxak.

Mazokaren X. edizioan gurekin izango ditugu grafiteroak, ekitaldi handietako ilustratzaileak, hala nola **Andrea V. Francesch** italiarra, zeinak, besteak beste, Cartier enpresarentzat lan egin baitu; bideosortzaileak eta kartelgileak, esaterako, **Ximon Aguirre** hernaniarra; poeta bisualak, hala nola **Alera Vida** dominikarra, zeinak artearen, gorputzaren eta memoriaren arteko harremana aztertzen baitu, papera eta ehunak esperimentazio-lurralde gisa erabiliz; edo **Raquel West** oviedoarra eta bere estilo zientifikoko eta landa-laneko koadernoetako itxurako irudi orri infografiko zainduak, non mitologia eta natura jorratzen dituen.

Ikasleekin batera egongo dira profesional ospetsuak, hala nola **Alberto Aragón** zaragozarra, zeina prentsan eta publizitatean espezializatuta baitago, eta The Washington Post, The New Yorker, El País, Liberation, Panenka, Heraldo de Aragón, Financial Times eta Público-rentzat lan egiten baitu.

Edo ilustratzaile editorial gisa ibilbide luze eta zaindua duten emakumeak, hala nola **Nuria Diaz** galiziarra, zeinak 35 liburu baino gehiago ilustratu baititu, horietako batzuetan egile osoa dela, bai testuarena, bai ilustrazioena (El gran hotel Wes Anderson; Alfred Hitchcock, el niño que filmó el miedo; Charlie Chaplin, el pequeño vagabundo).

Mazokan parte hartuko duen beste saridun bat **Ramón París** venezuelarra da: erreko-nozimenduak jaso ditu bere animazio eta motion graphics lanengatik (BDA Award, New York festivals, Publifestival eta LAUS), bai eta ilustratzaile gisa egindako lanengatik ere (2025/2020/2014 Haur eta gazteentzako libururik onenak, Banco del libro, 2024/2013 White Ravens, 2022/2020/2013 IBBY List International Board on Books for Young People, 2017 Bologna Illustration Exhibition, Audience Favorite, besteak beste).

Ahots femeninoak eta feministak, komikiaren munduan indartsu sartzen ari direnak, hala nola **Natalia Velarde**, 2020ko Bekikaslea eta 2021-2022ko Gazte Sorkuntzarako Injuve Beka jaso zuena, zeinak, azken beka horrekin, hainbat sari eta erreko-nozimendu jaso dituen bere lehen eleberririk argitaratu baitzuen Reservoir Books-en; **Clara Cábez "Cols"**, 50eko hamarkadako ikonografia iparramerikarraren eragin argia duen estiloarekin eta Bartzelonako 2022ko Komiki Azokan saritutako grafiko popekin; eta



MARRAZKI AZOKA
MERCADO
DE DIBUJO
E ILUSTRACIÓN

19-20-21
ABENDUA-DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
2025

Higinia Garay, zeina 2024-an Acción Cultural Españolak Angoulêmeko Eleberri Grafikoaren Egonaldirako hautatu baitzuten, eta 2021ean La Maison de la Littérature de Québec-ek, la Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image de Angoulême eta Azkuna Zentroak antolatutako Komiki Egonaldi Gurutzatuaren Beka eskuratu baitzuen.

Merezi du ere **Lindsay Olivares** kaliforniarra aipatzea, duela gutxi Euskadira bizitzera etorri dena. Ilustratzaileak ibilbide zabal eta aintzatetsia du Pertsonaien Diseinatzaile eta Zuzendari artistiko gisa, besteak beste, Netflixen “Los Mitchels contra las Máquinas” film animatuan egindako lanengatik. Bere bezeroen artean daude ere Sony Pictures Animation, Dreamworks Animation eta Disney TV Animation. Lindseyk Pertsonaien Diseinatzaile Onenaren eta Ekoizpen Diseinatzaile Onenaren bi Annies (Animazioaren Oscar sariak) jaso zituen 2022ko edizioan, eta bere “Hitzarte” lana jarriko du ikusgai, Euskal Herrira iritsi zenean abiatu zuen estilo piktorikoagoa duen proiektu ilustratua, euskara ikasteko prozesuarekin batera garatu duena.

Azkenik, ez ditugu ahaztu nahi Gasteizen hazi eta bizi izan diren hiru ilustratzaile, ibilbide desberdina izan dutenak: **Alex Echeita**, **Diego Blanco** eta **Alba Tojo**. Lehenengoa Blackwork estiloan espezializatuta dago eta pieza bakanak ekarriko ditu, ilustratuak eta teknika artisauekin egindakoak, hala nola maskarak eta osagarriak (zintzilikarioak, giltzatak, imanak, kandelak eta pieza apaingarriak), guztiak ere tatuajearen unibertsoan eta arte garaiki-dearen eta hiri-kulturaren arteko fusioan inspiratutakoak. Bigarrenak, aldiz, ilustratzaile gisa dihardu Madrilen duela hamarkada batzuetatik, Santillana, Anaya, Alfaguara, Planeta, Oxford argitaletxeentzat, besteak beste, baita hedabideentzat ere, hala nola El País, Diario Público, revistaZero, 20 minutos, Muy interesante, eta abarrentzat; eta enpresentzat ere. Bere lanen eta originalen aukeraketa bat jarriko du salgai, baita berak diseinatu eta ilustratutako liburu batzuk ere. Alba Tojo Murgian bizi den gasteiztarren lan artistikoa grabatu garaikidean zentratzen da, xilografian nagusiki, baina beste kalkografia teknika batzuk ere erabiltzen ditu, adierazpide bisual berrien bere etengabeko bilaketa horretan.



MARRAZKI AZOKA
MERCADO
DE DIBUJO
E ILUSTRACIÓN

19-20-21
ABENDUA-DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
2025

IRABAZLEEN, BEKADUNAREN ETA ORDEZKOEN ZERRENDA

Adrián Fuentes Marrupe

Alba Ramírez Borrego

Alba Tojo Rico

Alejandro Echeita Benguria

Alberto Aragón Miguel

Alicia Durán Medina

Andrea V. Franceschi

Belén Moreno Zaldibar

Carlos Torres García

Clara Cábez López

Conchi Trujillo Petidier

Diego Blanco López

Higinia Garay Zarate

Julio García Falagán

Laura Mestre

Lindsey Olivares

Lucía Antruejo Tovar

Lucía Vázquez de Prada de Miguel

MA, Lobón Leal y Cristina Fernández

María Ortiz Baños

Natalia Velarde Morín

Nuria Díaz Berride

Olga Alameda Bustos

Paloma Escolar de Miguel

Raquel Arano/ Paula Arias

Raquel Westphal Marquez

Ramón París

Regina Jiménez Costa

Ruth Juan

Sebastián Espinazo Bravo

Ximon Agirre Izko

BEKADUA:

Sebastian Espinazo

ERRESERBAK:

ELENA MOMPÓ –BARTZELONA

PABLO SANGÜESA –MADRIL

MABEL ESTEBAN –BURGOS

JON ANDER ART –TARRAGONA

JON CARO (MARMORMIK)- ERRIOXA

ALBA ROMEU (PUFUSHKA) –VALENTZIA

PAU ESPARÓ (SILLYBOXMAN) –BARTZELONA

LEIRE IPAR –ARABA

AURORA RUIZ –MURTZIA

SUSANA ROSIQUE –GIPUZKOA



MARRAZKI AZOKA
MERCADO
DE DIBUJO
E ILUSTRACIÓN

19-20-21
ABENDUA-DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
2025

2024 ETA 2025eko ESTATISTIKEN ALDERAKETA

	2025	2024
ARABATIK	12%	16%
EUSKADITIK	26%	37%
ESTATUTIK	61%	59%
NAZIOARTETIK	13%	4%
EMAKUMEAK EDO GENERO EZ-BINARIOAK	80%	76%
GIZONEZKOAK	17%	20%
TALDE MISTOAK	3%	4%
IKASLEAK	12%	23%